DON MARCELINO LANDA PASQUEL, Secretario de la Junta General del Valle de Roncal,

CERTIFICO: Que el Acta de la sesión extraordinaria celebrada por la Junta General del Valle de Roncal, el día once de noviembre de dos mil veinte, dice literalmente como sigue:

"En la villa de Roncal y Casa del Valle, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día once de noviembre de dos mil veinte, con asistencia del Secretario D. Marcelino Landa Pasquel y bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa de la villa de Uztárroz Dña. Jone Alastuey García, que concurre representando a esta villa, se reúne la Junta General del Valle de Roncal, en sesión extraordinaria, concurriendo por las demás villas la representación siguiente:

POR ISABA: D. Carlos Anaut Abadía
POR URZAINQUI: D. Félix Galetx Laiana
POR RONCAL: Dña. Amparo Viñuales Galé y D. Jesús María Cruchaga Mainz
POR GARDE: D. José Javier Echandi Sarriés y D. José Ángel Ureña Marco
POR BURGUI: Dña. Elena Calvo Petroch
POR VIDÁNGOZ: No concurre representación alguna

Abierta la sesión por la Sra. Presidenta y siguiendo el orden del día, fueron adoptados los siguientes acuerdos:

1º.- <u>CONCESIÓN DEL SERVICIO DE ATENCIÓN A DOMICILIO</u>

Se da cuenta de los escritos que presentan Don José Luis Calvo y Doña Amparo Necochea, en los que solicitan la prestación del Servicio de Atención a Domicilio, y la Junta, a la vista de los informes socio sanitarios, acuerda concederles, como prestación social, el Servicio de Atención a Domicilio demandado, quienes deberán abonar por ello las tasas establecidas en la vigente Ordenanza del SAD.

2º.- <u>APROVECHAMIENTO FORESTAL</u>

A la vista del Acta de la subasta pública, celebrada con el 10 por ciento de rebaja y a pliego cerrado, levantada el día 14/09/2020 en la que consta que el lote único del plan de cortas de 2019, sito en "Armuskoa", ha quedado desierto por falta de licitadores, esta Junta General acuerda por

MARCELINO LANDA PASQUEL Erronkaribarko Batzorde Nagusiko idazkariak,

ZIURTATZEN DUT: Erronkaribarko Batzorde Nagusiak 2020ko azaroaren 11n egin ezohiko osoko bilkuraren aktak hitzez hitz ondokoa jasotzen duela:

"2020ko azaroaren 11ko 18:30ean, Erronkariko Batzar-etxean, Marcelino Landa idazkaria izanik eta Jone Alastuey Uztarrozeko udaleko alkatea Batzordeburu dela, bera Uztarrozeko ordezkari gisa agertuz, Erronkaribarko Batzorde Nagusiak ezohiko osoko bilkura egin du. Gainerako herrien izenean ondoko ordezkariak bertaratu dira:

IZABA: Carlos Anaut Abadia
URZAINKI: Felix Galetx Laiana
ERRONKARI: Amparo Viñuales Gale eta Jesús María Cruchaga Mainz
GARDE: Jose Javier Echandi Sarries eta José Ángel Ureña Marco
BURGI: Elena Calvo Petroch
BIDANKOZE: Ez dago

Batzordeburuak bilkura hasi eta gai-zerrendari jarraiturik honako erabaki hauek hartu dira:

1. <u>ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA</u>

José Luis Calvo eta Amparo Necochearen idazkiak irakurri dira. Horren bidez Etxeko Laguntza Zerbitzua eskatzen dute. Txosten soziosanitarioak ikusirik, Batzorde Nagusiak Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzeko eskaerak onetsi dit. Horretarako, eskatzaileek ELZren Ordenantzak ezarritako tasak ordaindu beharko dituzte.

2. <u>BASO-APROBETXAMENDUA</u>

2020-09-14an egindako oihan-enkante publikoaren akta irakurri da, %10eko beherapenarekin eta plegu itxiaren bidez egin zena. 2019ko mozketa-planaren egur-sail bakarra zen, Armuskoan, eta hutsik geratu da lizitatzailerik ez zegoelako. Hori ikusirik, Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du aipatutako egur-saila saltzea hurrengo enkante batean, %20ko beherapenarekin.

unanimidad, proceder a la venta del lote mencionado con el 20 por ciento de rebaja, en una próxima subasta.

Al mismo tiempo, se acuerda estudiar la posibilidad de sacar a la venta, en la misma subasta: el lote sito en el paraje "Andreguia", que quedó desierto en la subasta celebrada el año 2015 (plan anual 2014), el lote sito en el paraje "Borda Ezquer", que quedó desierto en la subasta celebrada el año 2013 (plan anual 2012), y los lotes sitos en los parajes "Krutxillaga" y "Argaraya" que quedaron desiertos en la subasta celebrada el año 2019 (plan anual 2018).

3º.- CONSTRUCCIÓN VÍA DE SACA

Se pone en conocimiento de la Junta el escrito presentado por Dña. María Jesús Arrizurrieta y otros, en el que solicita autorización para la construcción de una vía de saca, por terreno comunal, para dar salida a la explotación forestal que se va a llevar a cabo en varias parcelas, sitas en el paraje "Ardibidigainea".

La Junta acuerda autorizar la construcción de la pista solicitada, poniendo el asunto en conocimiento del Guarda de la Mancomunidad para que haga un correcto seguimiento de las actuaciones, debiendo los solicitantes abonar los pinos que sea necesario explotar en la finca comunal, para la construcción de la vía.

4º.- RESOLUCIÓN DEL TRIBUNAL ADMINISTRATIVO DE NAVARRA DESESTIMADO EL RECURSO DE ALZADA NÚ. 19-02617 INTERPUESTO POR D. JESÚS DE MIGUEL LAYANA

Se da cuenta de la Resolución núm. 1180, del Tribunal Administrativo de Navarra, desestimando el Recurso de Alzada interpuesto por D. Jesús de Miguel Layana contra acuerdo de esta Junta General de fecha 07/11/2019, sobre denegación de indemnización por daños y perjuicios como consecuencia de la manga ganadera en el paraje "Lutoa"

La Junta se da por enterada y acuerda el archivo de la Resolución de referencia en el expediente de su razón.

5º.- RESTABLECIMIENTO SERVICIO DE AUTOBÚS LOS SÁBADOS

Desde el Ayuntamiento de Urzainqui, al ser conocedores de la suspensión del servicio de

Halaber, erabaki da enkante berean honako hauek saltzeko aukera aztertzea: "Andregia" alderdian zegoen egur-saila, 2015ean egindako enkantean hutsik geratu zena (2014ko plana); "Borda Ezker" alderdian zegoen egur-saila, 2013an egindako enkantean hutsik geratu zena (2012ko plana); eta "Krutxilaga" eta "Argaraia" alderdietan zeuden egur-sailak, 2019an egindako enkantean hutsik geratu zirenak (2018ko plana) .

3. EGURRA ATERATZEKO BIDEA EGITEA

María Jesús Arrizurrietak, beste batzuekin batera, aurkeztutako idazkiaren berri eman da. Horren bidez baimena eskatzen du herri-lur batean egurra ateratzeko pista bat egiteko, "Ardibidegainea" alderdiko hainbat lursailetan eginen den baso-ustiapena atera ahal izatekoko.

Batzordeak erabaki du pista egiteko baimena ematea. Gaia Mankomunitateko mendizainari jakinaraziko zaio, jarduketen jarraipen egokia egin dezan. Eskatzaileek herri-lurrean bidea egitean mozten dituzten pinuak ordaindu beharko dituzte.

4. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO AUZITEGIAREN EBAZPENA, JESÚS DE MIGUEL LAYANA JAUNAK JARRITAKO 19-02617 ZENBAKIKO GORA JOTZEKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA.

Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 1180 zenbakiko Ebazpenaren berri eman da. Horren bidez ezetsi egin da Jesús de Miguel Layana jaunak Batzorde Nagusiak 2019/11/07an hartutako erabakiaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa, "Lutoa" alderdiko abereentzako mangaren ondorioz kalte-ordainak ukatzeari buruzkoa. Batzordea jakinaren gainean geratu da, eta ebazpena espedientean artxibatzea erabaki du.

5. LARUNBATETAN AUTOBUS ZERBITZUA BERRIZ JARTZEA

Urzainkiko Udalak eskatu du larunbatetan Iruñea/Uztarroze-Uztarroze/Iruñea autobus zerbitzua berriz jartzeko, asteburuetan autobus zerbitzua bertan behera geratu dela jakin baitu.

Batzordeak, Erronkaribarko udalekin batera, honako hau erabaki du: Nafarroako

autobús el fin de semana, solicitan el restablecimiento del servicio de autobús Pamplona/Uztárroz-Uztárroz/Pamplona de los sábados.

La Junta acuerda, junto con los Ayuntamientos que conforman el Valle de Roncal, solicitar al Gobierno de Navarra el restablecimiento del servicio de autobús Pamplona/Uztárroz-Uztárroz/Pamplona de los sábados.

6º.- <u>CONVOCATORIA PARA CUBRIR, EN RÉGIMEN ADMINISTRATIVO, LA PLAZA DE SECRETARÍA E INTERVENCIÓN DE LA JUNTA DEL VALLE</u>

Estando próxima la jubilación del actual secretario y siendo preciso cubrir el puesto para llevar a cabo las funciones públicas necesarias de Secretaría e Intervención en la Junta del Valle, se acuerda aprobar, por mayoría, con el voto en contra de la representación de Isaba, la convocatoria para la provisión temporal, mediante concurso-oposición, de la plaza de Secretario-Interventor de la Junta General del Valle de Roncal, así como para la constitución de una lista de aspirantes para el desempeño de dicho puesto, con carácter temporal, en situaciones de ausencia, enfermedad, o cualquier otra circunstancia que precise la sustitución.

La representación de Isaba vota en contra porque considera que no es necesario cubrir la plaza con un Secretario con titulación, sino que debe seguir como hasta ahora, con un Secretario, con titulación media, y con asesoramiento del Letrado Asesor.

7º.- <u>SOLICITUD PARA CAPTACIÓN DE ETB3 EN EL VALLE Y EN NAVARRA</u>

Se da lectura al escrito que presenta D. Joseba Otano Villanueva, en representación de la plataforma a favor de ETB3, en el que dicen que el año pasado pusieron en marcha una iniciativa para poder ver ETB3 en Sakana y en toda Navarra, recibiendo el apoyo de varios agentes de Sakana, que el Gobierno de Navarra está buscando una solución para que se vea, en general, en la zona de la montaña de Navarra, pero que la zona del Valle de Roncal quedaría fuera de esa solución, y solicitan que esta Junta General adopte acuerdo solicitando la captación de ETB3 en el Valle de Roncal y en toda Navarra.

La Junta, viendo interesante la iniciativa acuerda solicitar del Gobierno de Navarra y del Gobernuari eskatzea larunbatetan Iruñea/Uztarroze-Uztarroze/Iruñea autobus zerbitzua berriz jartzeko.

6. <u>BATZORDE NAGUSIAREN IDAZKARITZA KONTU-HARTZAILETZA LANPOSTUA BETETZEKO DEIALDIA</u>

Idazkariaren erretiroa gertu dagoenez eta Batzorde Nagusiaren Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako funtzio publikoak egiteko lanpostua bete behar denez, erabaki da, gehiengoz, Izabako ordezkariaren aurkako botoarekin, Erronkaribarko Batzorde Nagusiaren idazkari-kontuhartzaile lanpostua aldi baterako eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea, bai eta izangaien zerrenda bat eratzeko ere, absentzia, gaixotasun edo ordezkatzeko gerta daitezkeen bestelako egoeretarako.

Izabako ordezkariak aurkako botoa eman du. Bere ustez ez da beharrezkoa lanpostua betetzea titulazioa duen idazkari batekin, baizik eta orain arte bezala jarraitzea, erdi-mailako titulazioa duen idazkari batekin eta abokatu-aholkulari baten aholkularitzarekin.

7. <u>ETB3 IBARREAN ETA NAFARROAN HARTZEKO ESKAERA</u>

Joseba Otano Villanueva jaunak, ETB3ren aldeko plataformaren ordezkari gisa, aurkeztutako idazkia irakurri da. Bertan esaten denez, iaz ETB3 Sakanan eta Nafarroa osoan ikusi ahal izateko ekimen bat jarri zuten abian, Sakanako zenbait eragileren babesa jaso zuena. Nafarroako Gobernua konponbide bat bilatzen ari da, oro har, Nafarroako mendialdean ikus dadin, baina Erronkaribar konponbide horretatik kanpo geratuko litzateke. Hori dela eta, Batzorde Nagusiari eskatzen dio ETB3 ibarrean eta leku guztietan ikustearen aldeko erabakia har dezala. Ekimena interesgarria dela jo denez, Batzorde Nagusiak erabaki du Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari eskatzea ETB3 ibarrean eta Nafarroa osoan ikusteko behar diren neurriak har ditzaten. Erabakia Nafarroako Gobernuari, Gobernuaren Ordezkaritzari eta Administrazioan Euskaraz taldeari igorriko zaie.

Gobierno de España que adopten las medidas necesarias para que pueda captarse ETB3 en el Valle de Roncal y en toda Navarra, remitiendo el acuerdo, ahora adoptado, al Gobierno de Navarra, Delegación del Gobierno y al grupo Administrazioan Euskaraz.

8º.- SOLICITUD AYUDA PARA PROYECTOS DE COMUNICACIÓN TURÍSTICA

Se da lectura al escrito que presenta la Asociación de Servicios y Actividades de Turismo del Valle de Roncal en el que indican que se han propuesto la dinamización del destino Valle de Roncal, a través de una campaña de promoción de acciones publicitarias, con el objetivo principal de presentar el Valle de Roncal como un destino atractivo para los próximos meses de otoño e invierno y posicionarlo en el mercado.

Solicitan que la partida de 3.700,00 euros que se iba a adjudicar a la Asociación les sea concedida para acometer este proyecto, que consideran necesario.

En reunión celebrada por la Comisión de Turismo el día 19/05/2020, se acordó, en relación con el Convenio a suscribir con la citada Asociación, posponer su firma para el año que viene y para el año en curso estudiar y analizar la posibilidad de conceder a la Asociación Turística la cantidad referida a la cuota que importa la cantidad de 3.710,00 euros.

La Junta, habida cuenta que no existe Convenio ni partida presupuestaria en los presupuestos de este año, que justifiquen el pago solicitado, acuerda, por mayoría, con la abstención de la representación de Burgui, desestimar la solicitud y trasladar el asunto a la Comisión de Turismo para que estudie el asunto e informe a esta Junta.

La representación de Burgui matiza su abstención indicando que no adopta acuerdo sin el análisis y estudio previo por parte de la Comisión de Turismo.

9º.- SOLICITUD DE AYUDA PARA LA FUNDACIÓN BANCO DE ALIMENTOS

Se pone en conocimiento de esta Junta General el escrito que envía D. Joaquín Fernández, en representación de la Fundación Banco de Alimentos de Navarra, en el que solicita colaboración económica para combatir la desnutrición y la malnutrición de las personas y familias de nuestro entorno, cuyas circunstancias

8. TURISMO-KOMUNIKAZIOKO PROIEKTUETARAKO LAGUNTZA-ESKAERA

Erronkaribarko Turismo Zerbitzu eta Jardueren Elkarteak aurkeztutako idazkia irakurri da. Adierazten duenez Erronkaribar helmuga turistiko gisa dinamizatu nahi dute, publizitate-jarduerak sustatzeko kanpaina baten bidez, ibarra udazken eta neguko hilabeteetan helmuga erakargarri gisa aurkezteko eta merkatuan kokatzeko.

Eskatzen dute elkarteari esleitu behar zitzaion 3.700,00 euroko diru-saila proiektu honi ekiteko eman dakion, beharrezkotzat jotzen baitute.

Turismo Batzordeak 2020/05/19an egindako bileran erabaki zuen elkarte horrekin sinatu beharreko hitzarmena datorren urterako uztea, eta aurten Turismo Elkarteari 3.710,00 euro emateko aukera aztertzea.

Alabaina, ordainketa justifikatzen duen hitzarmenik eta aurrekontuetan diru-sailik ez dagoenez, Batzorde Nagusiak, Burgiko ordezkariaren abstentzioarekin, ondokoa erabaki du: eskaera ezestea eta gaia Turismo Batzordeari igortzea, gaia aztertu eta Batzordeari berri emateko.

Burgiko ordezkariak argitu du ez duela akordiorik hartu nahi Turismo Batzordeak aztertu arte.

9. ELIKAGAIEN BANKUA FUNDAZIOARENTZAKO DIRULAGUNTZA-ESKAERA

Joaquín Fernández jaunak, Nafarroako Elikagaien Bankua Fundazioaren ordezkari gisa, bidali duen idazkiaren berri eman da. Horren bidez dirulaguntza eskatzen du "inguruko pertsonen eta familien desnutrizioari eta malnutrizioari aurre egiteko, haien egoera sozial eta ekonomikoak eragozten baitie elikadura nahikoa eta osasungarria eskuratzea".

Idazkia ikusita, Batzordeak honako erabaki hau hartu du: eskatzaileari jakinaraztea ez diola dirulaguntzarik emanen Nafarroako Elikagaien Bankua Fundazioari, Batzorde Nagusiaren mendeko Gizarte Zerbitzuaren lehentasuna baita ibarrean beharra duten pertsonei eta familiei laguntzea.

de carácter social y económico les impiden acceder, por sus propios medios, a una alimentación suficiente y saludable.

La Junta, a la vista del escrito de referencia, acuerda comunicar al solicitante que ha decidido no va a colaborar económicamente con la Fundación Banco de Alimentos de Navarra, ya que, desde el Servicio Social, dependiente de esta Junta General existe la prioridad de ayudar a las personas y familias necesitadas del Valle.

10º.- ARRENDAMIENTO POR CONCIERTO DIRECTO DEL BAR DE LA MATA DE HAYA

Se pone en conocimiento de esta Junta que el día 31/12/2020, termina el contrato de arrendamiento de la explotación y gestión del bar, ubicado en el Rincón de Belagua (Mata de Haya), suscrito con Dña. Karin Hübner.

Habida cuenta que el servicio que se ofrece es importante para la población en general y que la arrendataria ha demostrado capacidad suficiente para llevar a cabo la utilización y explotación del recinto, se acuerda, por unanimidad, adjudicar por concierto directo el bien patrimonial "Bar de Mata de Haya", por un año prorrogable, a Dña. Karin Hübner, con DNI número X1815206T, en la cantidad de 3.600,00 euros (IVA incluido).

Todo ello en conformidad con el artículo 127, de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra, artículo 114, del Decreto Foral 280/1990, del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra y Disposición Adicional segunda, de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público.

11º.- PLANTILLA ORGÁNICA AÑO 2021

En conformidad con el Acta de la Comisión de Ordenanzas y Servicios Administrativos, levantada con fecha 5/11/2020, se acuerda:

1º.- Aprobar inicialmente, por mayoría, con el voto en contra de la representación de Isaba, la Plantilla Orgánica de la Junta General del Valle de Roncal para el año 2021, que queda reflejada y está archivada en el expediente de su razón.

La representación de Isaba vota en contra, por considerar que el conocimiento del euskera debe exigirse únicamente como requisito al Técnico de Euskera, debiendo valorarse como mérito para el resto del personal y por estar disconforme con la propuesta de aumentar la jornada a las Trabajadoras Familiares al 68,83%.

10.- BAGOMALTAKO TABERNA ZUZENEKO HITZARMEN BIDEZ ALOKATZEA

Batzordeari jakinarazi zaio Belaguako (Bagomalta) taberna ustiatzeko eta kudeatzeko errentamendu-kontratua 2020/12/31n amaituko dela, Karin Hübnerrekin sinatua.

Ematen den zerbitzua herritarrentzat garrantzitsua denez eta errentariak taberna ustiatzeko eta kudeatzeko behar besteko gaitasuna duela erakutsi duenez, Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du "Bagomaltako taberna" ondasuna zuzeneko hitzarmen bidez esleitzea Karin Hübnerri (NAN: X1815206T). Esleipen-aldia urtebetekoa izanen da, luza daitekeena, eta urteko errenta 3.600,00 euro (BEZa barne).

Erabaki hori bat dator Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 127. artikuluarekin, Nafarroako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduari buruzko 280/1990 Foru Dekretuaren 114. artikuluarekin eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriarekin.

11. 2021EKO PLANTILLA ORGANIKOA

Ordenantzen eta Administrazio Zerbitzuen Batzordeak 2020/11/05ean egindako bileraren aktari jarraikiz, honako erabaki hauek hartu dira:

1.-Erronkaribarko Batzorde Nagusiaren 2021eko plantilla organikoa hasiera batean onestea, Izabako ordezkariaren aurkako botoarekin. Plantilla hori espedientean jaso eta artxibatu egin da.

Izabako ordezkariak aurkako botoa eman du ondoko arrazoiengatik: batetik, uste du euskara jakitea euskara teknikariari soilik eskatu behar zaiola eta gainerako langileei merezimendu gisa baloratu behar zaiela; eta bestetik, ez dago ados familia-langileei lanaldia %68,83ra igotzeko proposamenarekin.

2.-Langileen ordezkariaren proposamenak ebatzi gabe uztea, hau da, jantokiko eta garbiketako laguntzailea E mailatik D mailara igotzea eta administrazio-laguntzailea D mailatik C mailara igotzea. Ordenantzen eta Administrazio Zerbitzuen Batzordeak aztertuko

2º.- Dejar pendiente de resolución las propuestas de la representante sindical de reconsiderar el nivel E de la trabajadora de Auxiliar de cocina y limpieza pasando al nivel D y reconsiderar el nivel D de la Auxiliar Administrativo pasando al nivel C de la Administración, hasta que la Comisión de Ordenanzas y Servicios Administrativos estudie la legitimidad para realizar estos encuadramientos dentro de los cauces previstos en la normativa de personal, las medidas que se pueden adoptar (revisión de complementos, realización de procedimientos de promoción, etc.), si la Junta General quiere aplicar estos incrementos.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las veinte horas y treinta minutos del día señalado al inicio, por la Sra. Presidenta se levanta la sesión, redactándose la presente Acta que, leída y hallada conforme, es firmada por todos los asistentes, conmigo el Secretario que certifico."

Y para que conste donde proceda, se expide la presente certificación, Visada y Sellada, y se envía a cada uno de los Ayuntamientos del Valle, para su exposición en el Tablón de Anuncios, en Roncal a once de noviembre de dos mil veinte.

Vº Bº/ O.E.
LA PRESIDENTA/BATZORDEBURUA

Fdo./Sin.: Jone Alastuey García

du horiek egin daitezkeen langileen araudian aurreikusitako bideen barruan eta zer neurri har daitezkeen (osagarriak berrikustea, sustapen-prozedurak egitea, etab.), Batzorde Nagusiak horiek ezarri nahi baditu.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 20:30ean Batzordeburuak bilkura amaitu du, honako akta hau idatzi, irakurri eta ontzat emana, bertaratutakoek sinaturik eta neronek, idazkariak, egiaztaturik."

Eta behar den lekuan ager dadin, ontzat emana eta zigilatuta, honako egiaztagiri hau egin eta Erronkaribarko udaletara bidali da, iragarki-oholetan jendaurrean jartzeko.

Erronkarin, 2020ko azaroaren 11n.

EL SECRETARIO/IDAZKARIA

Fdo./Sin. Marcelino Landa Pasquel